



Izokin arrantzan Bidasoan. Horrelakorik ez da izanen aurten. ARTXIBOKOA

## Izokina arrantzatzea debekatuko dute denboraldi honetan Bidasoan

### TTIPI-TTAPA

Denboraldi honetan ezin izanen da izokinik arrantzatu Bidasoan. Horixe da Nafarroako Gobernuko Itziar Gomez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak onartutako foru aginduak, 2023rako arrantzarako debekualdien xedapen orokorrak onartzen duena.

Berrikuntza gisa, 2023 honetan izokinaren geldialdi biologiko bat egingen da, hau da, arrantzatzea debekatuko da espezie hau berreskuratze aldera zeren, GAN-NIK sozietate publikoaren azken txos-

tena kontuan hartuta, bere egoera kritikoa da duela hiru hamarkadatik, baina okerrera egin du 2018tik temperaturen igoeragatik eta lehortegatik.

Espezie hau berreskuratze-kotan, geldialdi biologikoaz eta piszifaktoriako arrainkumeen ekoizpeneko ohiko lanez, ibai eta erreken iragazkortze lanez hala nola izokina kudeatzeko planak barne hartzen dituen gainerako neurriez haratago, Ingurumen departamentua lanean ari da lan-talde bat sortzeko, LIFE Kantauribai proiektuaren esparruan irtenbideak proposatzeko.

